

2015

KULTUR ETXEA LOIOLA

donostiakultura.com

Loiola Kultur Etxearentzat 2015. urtea ez zen erraza izan. Hainbat obra eta hirigintza proiektu baitaude Loiola eta inguruko auzoetan, esaterako, Lorategi Hiria, Txomin Enea, topoa moldatzeko lanak, uholdeak saihesteko obrak, eta kultur etxeak horren eragina jasan zuen. Zaratak, kutsadurak eta irisgarritasun ezak, Loiola Kultur Etxearen programazioan eragina izan dute, eta kultur etxea lan hauei lotutako hainbat bilera, asanblada eta abarren egoitza bilakatu da.

Hala ere, Loiola Kultur Etxeak bere eginkizunari heldu zion eta programazioari dagokionez, hainbat egitasmo eta jardunaldi burutu ziren.

Zinemari lotuta, aipagarria zazpi pelikula aurkeztu zirela. **Olatu Talka** jaialdiko **Herri Akzioa: Erregina Loiolako Lorategi Hirian (erreplika)** eta **filmazioaren toma faltsuen pelikula** eskaini dira. Ibaia ardatz duen **Ni Urumea** Labrit Multimedia ekoizpen etxearen dokumentala. Juanmi Gutiérrezrek zuzendutako **Urak Dakarrena** filmaren ekoizpena eta aurkezpena hunkigarria izan zen Loiolako auzotarrentzat. Dokumentalak Donostiako Txomin Enea auzoko sei kolektiboren historia jaso du eta hainbat erakunderen elkarlanaren emaitza da. Azkenik, Calcuta Ondoan GKEren **Mujeres de luz** dokumentala eta Tabakalerak egindako **Mañana Goodbye. Elkarrekin lan egiten duen emakume taldea** aurkeztu ziren. Bestetik, Urumea ibaiari lotuta, aipatzekoa da **Urumeako Altxorrak**, altxorrik berezienak artelan bihurtzeari buruzko jarduera, Gondolin Klubak eta DSS2016EUK antolatuta.

Zeharkako jardueri dagokienez, 2015ean parte-hartze handia izan zuten hainbat jarduera burutu ziren, hainbat eragileekin eta elkarrekin elkarlanean. Aipatzekoak dira, **Euskararen Astea, XVII. Mikologia eta Gastronomia Jardunaldiak, Nazioarteko Folklore Jaialdia, Gazte eta Haur Astea, Kantujira** eta auzoan errotutako beste zenbait jai. Loiola Kultur Etxeko Liburutegi zerbitzuak ere hainbat zeharkako jarduera antolatu zituen, hiru espaziotan: Amundarain Mediatekan, Etxarriene Auzo Etxean eta Loiola Kultur Etxeko liburutegian bertan.



Literaktum: [Rikardo Arregi](#), [Susana Benet](#), [Eli Tolaretxipi](#), [Antonio Casado](#).



Hitzaldia: [Josep Pamies](#)



Latsarien errekreazioa

Performance-n atalean, erakargarria eta estetika ederreko **Latsarien errekreazioa** Urumea ibai ertzean egin zen. Atari Eder plazan, **Panpin Parada**, Pili Jauregi diziplina anitzeko artistak egindako instalazioa; eta ibaian, bira nautikoa Loiola txanelan, Alberto Saavedra eskultorearen panpinarekin, **Klown-Biodantza Topaketa** eta abar.

Loiola Kultur Etxetik kanpo egindako txangoek eta ibilaldiak harrera ona izan zuten auzoan, eta nabarmentzekoak: Urumea arroa ezagutzeko antolatutako irteerak; Albaola Itsas Kultur Faktoriara egindakoak; Sagardoetxera bisita; Ametzagaina Gotorlekura bisita; Impact Hub Donostia taldearekin antolatutako **Jane Jacob's egitasmoa**, hirigintza gizatiarragoaren defendatsan hiritik ibiltzearen plazera helburu duena.

Martuteneko programazioaren dinamikari lotuta, Amundarain Mediatekarekin, Etxarrireneko Hautxokoarekin, Gaztelekuarekin, Auzo Elkartearekin, Jai Batzordearekin, Euskara Batzordearekin eta Abesbatzekin hainbat jardura eta ekitaldi antolatu ziren.

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuari lotuta, 2015ean honako proiektuak landu ziren: **Lekurik gabe, denborarik gabe** proiektua, instituzio totaletan (kartzela, psikiatria-zentroak...) dauden pertsonen eta muturreko egoera bizi dutenen sortutako adierazpideei balio soziala eta kulturala ematen laguntzea helburu duena; **Bakearen Milia** proiektua, artistak aberasteko egonaldiak; **Itsasoratze artibista** proiektua, artea eta arte-lana presarik gabeko hausnarketarekin lotzen ditu eta artibistak (artista aktibista) aurre egin behar die gure sasoiko gizarte-premiei.



Panpin Parada performance



Juanmi Gutiérrez eta bizilagunak:
Urak dakarrena filmaren aurkezpena

DATUAK

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	306	44.071
Antzerkia eta dantza	21	3.870
Bideoa eta Zinea	12	819
Musika	38	5.046
Literatura	1	20
Hitzaldiak	8	391
Ikastaroak eta tailerrak	39	591
Erakusketak	23	29.652
Ikarteen bilerak eta jarduerak	128	3.324
Aretoen alokairuak	1	12
Liburutegiko jarduerak	35	346
ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	16	17.506
Liburutegiko bisitariak		17.274
Plus 55	16	232

Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua: **6**

PRESTAKUNTZA EMAKUMEAK

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Número	Usuarios/os	Número	Usuarios/os	Número	Usuarios/os
GUZTIRA	39	467	12	118	27	349
2014/2015 ikastaroak	21	248	7	64	14	184
2015/2016 ikastaroak	18	219	5	54	13	165

PRESTAKUNTZA GIZONAK

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Número	Usuarios/os	Número	Usuarios/os	Número	Usuarios/os
GUZTIRA	39	124	12	36	27	88
2014/2015 ikastaroak	21	68	7	23	14	45
2015/2016 ikastaroak	18	56	5	13	13	43

Bisitariak GUZTIRA: **59.192**